

**2016KO EKAINAREN 30EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO
BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamarra.

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hamaseia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak hamar gutxi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2016ko maiatzaren 26ko akta onartzea.

2016ko maiatzaren 26ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRAK KONTRATATZEA: Zazpiturrieta, 4 arean igogailua instalatzeko eta urbanizazio osagarria egiteko obrak. Plegua onartzea eta deialdia.

Ezagutzera eman da hirigintza batzordearen proposamena, hau da: aipatutako obrak kontratatzeke baldintza plegua onartzea eta deialdia publikoa egitea, GAOean iragarkia argitaratuz, baina beti ere, jendaurrean dagoen Zazpiturrieta, 4. Areako Hirigintza Proiektuari behin betiko onespena ematen zaioenean.

Baldintza pleguaren xehetasun nagusiak hauek dira:

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetzea: arrunta

3.- Lizitazio prezioa: 274.507,67 € BEZ kanpo, 332.154,28 € BEZ barne.

4.- Egikaritze epea: 4 hilabete.

5.- Klasifikazioa: C taldea eta 2 azpitaldea. J taldea eta 1 azpitaldea. Klasifikazioa berez, ez da eskatzen kontratuaren estimatutako prezioak ez dituelako 500.000,00 € gainditzen. Aurkeztu ezker horrekin justifikatuta geratzen da kontratistak kaudimen

ekonomikoa nahiz teknikoa duela. Aurkeztu ezean pleguan adierazten diren dokumentuekin justifikatuko dira aipatutako kaudimenak.

6.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- Proposamen ereduak: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan, 14,00 baino lehen.

9.- Adjudikazio irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.
- Proposamen teknikoa: 40 puntu.
- Euskara: 5 puntu.
- Hobekuntzak: 5 puntu.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Idazkari andreak ohartarazi du, enpresek "Bai Euskarari" edo "Bikain" agiriak izateak esleipen irizpideetan baloratzea ez dela zuzena, irizpide horrek ez duelako kontratuaren helburuarekin zer ikusirik.

Koldo Agirre jaunak (BILDU) adierazi du, beraien jarrera abstentzioarena izango dela, hirigintzan behin eta berriz gai honen inguruan azaldutakoaren arabera.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ/PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 2 (BILDU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da, Zazpitarrieta, 4 arean igogailua instalatzeko eta urbanizazio osagarria egiteko obrak kontratatzeko baldintza plegua eta deialdia publikoa egitea, baina beti ere, Zazpitarrieta, 4. Areako Hirigintza Proiektuari behin betiko onespena emanda gero.

3.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA: Beasaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen aseguru pribatuak. Plegua onartzea eta deialdia.

Antolakuntza batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Beasaingo Udalaren eta bere organismo autonomoen aseguru pribatu ezberdinak kontratatzeko deialdia egitea eta lehiaketa arautuko duten baldintza administratibo eta teknikoak onartzea. kontratuaren helburua lau loteetan zatitzen da:

- 1 Lotea: Higieziei (edukitzailea eta edukia) eta higigarriei egindako kalteak.
- 2 Lotea: Erantzukizun zibila eta ondarezkoa.
- 3 Lote: Motordun ibilgailuen erabileraren ondorioz sortutako erantzukizun zibila eta ondare arriskuak.
- 4 Lote: Erraldoi eta buruhandien konpartsaren osasun laguntza: urtean 7 iteera, 3 epealdi desberdinetan, 17 lagunekin gutxi gora behera.

1.- Kontratatzeko era eta prozedura: Lehiaketa irekia publikitatearekin eta prozedura arrunta.

2.- Lizitazio prezioa:

- 1 Lote: 45.000 €.
- 2 Lote: 30.000 €.
- 3 Lote: 6.000 €
- 4 Lote: 700 €.

3.- Espedientea: Baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.eus). Zehazki kontratatzailearen profilean.

4.- Behin betiko bermea: Adjudikazio aurrekontuaren %5a.

5.- Egikaritze epea: Bi urte 2016-09-01etik kontatzen hasita, luzatzeko aukerarik gabe.

6.- Kaudimen ekonomikoa:

Lizitatzailer edo izangaiaren urteko negozio bolumena, amaitutako azken hiru urteetan izandako gehieneko bolumen urtearekin alderatuta, gutxienez kontratuaren aurreikusitako balorearen aldi bat eta erdi izan beharko du bere iraupena urtebetekoa baino handiagoa ez denean, eta kontratuaren iraupena urtebete baino handiagoa bada, gutxienez kontratuaren urteko batez bestekoaren aldi bat eta erdi.

7.- Kaudimen teknikoa:

Azkeneko bost urteetako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, elementu hauek sartuta: zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua). Egindako zerbitzu edo lanak organo eskudunak igorritako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira; hartzailea sektore publikoko Erakunde bat edo subjektu pribatu bat denean, honek igorritako ziurtagiri bidez eta ziurtagiri honen ezean, enpresariaren aitortzearen bidez.

8.- Esleipen-irizpideak:

Eskaintzen ponderazioa zati bakoitzeko eta banaka egingo da; eta prozedura ireki bidez egingo den adjudikaziorako oinarri izango diren irizpideak zati bakoitzeko, ondorengoak dira:

- Eskaintza ekonomikoa: 70 puntu.
- Hobekuntzen balorazioa, 1 loteari (15 puntu), 2 loteari (15 puntu) eta (15 puntu).

9.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguan azaltzen dena.

10.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egun naturaletan, 8,00etatik 14,00etara.

11.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

12.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.